

HAUR HEZKUNTZA

3-5 URTE BITARTEKO GARAPENAREN EZAUGARRI OROKORRAK

Atxikimendua oso garrantzitsua da haurren bizitzan: konfiantza emango dien eta bidelagun izango dutenerreferente baten beharra dute.

Ezeta: helduen ezetzaren aurrean erabiltzen dute, eta, ondorioz, kasketak eta frustazioak etortzen dira.

Aktibitatea: aktibitate handiko garaia da, ekintza batetik bestera pasatzen dira eta gauza bera egiten denbora gutxi pasatzen dute.

Esplorazioa: inguruan dagoen guztia deskubritzeko eta esploratzeko sena dute.

Arreta: arreta epe motz batez soilik mantenduko dute.

Imitazioa: imitazioz ikasten dute.

Jolasa

Jolasa da Haur Hezkuntzako haurren ekintzaren adierazpen nagusia. Jolasaren bitartez haurrak ukitu, sentitu, manipulatu, esperimentatu... egiten du, eta inguruarekin izango dituen esperientzien bitartez, egoera ugari biziko ditu pentsamenduaren oinarriak eraikitzeko. Hala nola, jolastuz, haurrak espazioa esploratzen du, eta esplorazio horren bitartez hainbat nozioz jabetzen da. Era berean, jolasaren bidez aukera asko aurkituko ditu elementu desberdinen ezaugarriei behatzeko, elementuen arteko erlazioak ikusteko eta bere inguruko

elementuak sailkatzeko, eta objetuekiko harreman horretan bere pentsamendu arrazional eta zientifikoa garatzeko bidean jarriko da.

Kontuan hartzekoa da ere gizarteratzeko dimentsioan jolasak duen eragina. Haurrak, kideekin jolasean ari den bitartean, gizarte arauen balioa sentitzeko aukera izango du: arauak errespetatzea, aniztasunaren eta partaidetzaren garrantzia, autonomiaren beharra, talde lanaren balioa... Gizakiok harremanduz, jolastuz, imitatuz, ekinez eta esperientzia ezberdinak biziz eraikitzen baitugu gure pertsona.

Psikomotrizitatearen garapena

Adin-tarte honetan, gorputz-eskema erabat finkatzen da, eta gorputz atalak identifikatu egiten ditu haurrak. Horrekin batera, haurra lateralitatea lantzen hasten da, "alde bat / beste alde bat" kontzeptuen bitartez. Ikasleak, Haur Hezkuntza amaitutakoan, 6 urte inguru dituela, norberaren ezkerre eta eskuina bereizten hasten dira.

Gutxi gorabehera 3 urte dituztela, haurren mugimenduen koordinazioa nabarmen hobetzen da, jauzi egitean eta lasterka egitean bereziki. Pixkanaka-pixkanaka hasten dira arrapaladan ibiltzen eta oin bakar baten gainean jauzika.

Garapen kognitiboa

Haurrek 3-6 urte dituztela, aldi berean gertatzen dira garapen kognitiboaren eboluzioa eta deszentrazio-prozesua. Prozesu hori azaltzeko, ezkutaketaren adibidea erabiltzen da: 3 urteko haurrak begiak estaltzen ditu eskuekin, horrela inork ikusiko ez duelakoan; 4 urteko haurra ezkutatu egiten da, bere bila dabilen laguna ez ikusteko moduko leku batean; azkenik, 5 urteko haurra gai da erabat ezkutatzeko.

Funtzio sinbolikoa (2-3 urte) eta jolas sinbolikoa agertzen direnean, haurrari oraindik kostatu egiten zaio bere jardunean errealitatea eta fantasia bereiztea. Pentsamendua garatzeko, berak sortutako «errealitate»ko ideiak erabiltzen ditu.

Hizkuntzaren garapena

Hasieran, haurrak hizkuntza telegrafikoa erabiltzen du, eta 3 edo 4 hitzeko esaldi laburrak eratzen ditu. Hazi eta heldu ahala, hizkuntza sozializatu egiten da, hau da, solasaldira eta solaskidearen jokabidera egokitzen da.

3-6 urteko haurraren hizkuntzak, nahiak adierazteaz gain, informazioa trukutzen du (galde-erantzunekin edo gabe), eta kritikak, aginduak edo eskaerak plazaratzen ditu.

Garapen pertsonal-soziala

3-6 urteko umea egozentrikoa da, eta guztiak bere inguruan bira egiten duela uste du. Aldi berean, nitasunaren kontzientzia hartzen hasten da, eta bere burua onartzen eta aintzat hartzen du.

Pertsona helduek erabateko eragina dute adin honetako haurrengan. Haiengandik jasotzen dute informazioa norberaren ahalbide eta mugen inguruan, eta gizartean bizitzeko oinarrizko jokabide-arauak barneratzen dituzte.

Adimenaren garapenean aurrera egin eta komunikazio-baliabide gehiago eskuratu ahala, harremanak estutzen dituzte beste neska-mutilekin.

HELDUAREN PAPERA:

- Hurrek zer nahi duten dakite, eta guk zer behar duten. Kontuan hartuko ditugu beren egoerak eta nahiak, baina guk hartuko ditugu erabakiak. Beraiek ez dute gaitasunik erabaki potoloak hartzeko. Guri dagokigu erabakiak hartzea.
- Haurrak frustratzen jakin behar du, horretarako arau eta muga argiak izan behar dituzte. Mugak segurtasuna ematen dio haurrari, eguneroko ekintzei aurre egiteko. Muga horiek era argian azaldu behar dira, helduon artean kontraesanetan erori gabe, eta ondorio bat izan behar dute.
- Hizkuntza garatu behar diegu, beraiekin elkarrizketak mantenduz eta entzule aktiboak izanez, beraiek esan behar dutenari aurreratu gabe. Argi eta poliki hitz egin behar diegu.
- Autonomia bultzatu behar dugu, adinari dagozkion ardurak sustatuz (txamarra kendu eta zintzilikatu, zapatak kendu, bakarrik jan, mahaia jarri...).

EDUCACIÓN INFANTIL

Características generales del desarrollo de 3 a 5 años

El apego es muy importante en la vida de los niños: necesitan un referente que les dé confianza y les acompañe.

El no: lo utilizan ante el no de los adultos, lo que provoca rabietas y frustraciones.

La actividad: es una época de mucha actividad, saltan de una acción a otra y pasan poco tiempo haciendo lo mismo.

La exploración: tienen el instinto de descubrir y explorar todo lo que hay alrededor.

La atención: sólo mantendrán la atención durante un corto periodo de tiempo.

La imitación: aprenden por imitación.

El juego

El juego es la principal expresión de la acción de los niños y niñas de Educación Infantil. A través del juego el niño o niña toca, siente, manipula, experimenta... y a través de sus experiencias con el entorno, vivirá múltiples situaciones para construir las bases del pensamiento. Así, jugando, el niño explora el espacio, y a través de esa exploración se apropia de varias nociones. Asimismo, a través del juego encontrará muchas posibilidades para observar las características de los diferentes elementos, ver las relaciones entre estos y clasificar los elementos de su entorno, y en esa relación con los objetos se pondrá en vías de desarrollar su pensamiento racional y científico.

También hay que tener en cuenta la influencia del juego en la dimensión socializadora. El niño o niña, mientras juega con sus compañeros y compañeras,

tendrá la oportunidad de sentir el valor de las normas sociales: el respeto a las normas, la importancia de la diversidad y la participación, la necesidad de la autonomía, el valor del trabajo en equipo... Los seres humanos construimos nuestra identidad relacionándonos, jugando, imitando, actuando y viviendo diferentes experiencias.

Desarrollo de la psicomotricidad

En esta franja de edad, el esquema corporal se fija totalmente y la parte corporal es identificada por el niño. Junto a ello, el niño comienza a trabajar la lateralidad a través de los conceptos de "un lado/otro lado". Los alumnos, una vez finalizada la Educación Infantil, a los 6 años, empiezan a distinguir entre la izquierda y la derecha.

A los 3 años aproximadamente, la coordinación de los movimientos de los niños y niñas mejora notablemente, especialmente al saltar y correr. Poco a poco comienzan a galopar y a saltar sobre un solo pie.

Desarrollo cognitivo

La evolución del desarrollo cognitivo y el proceso de descentración se producen simultáneamente en los niños y niñas de 3 a 6 años. Para explicar este proceso se utiliza el ejemplo de la ocultación: el niño de 3 años se tapa los ojos con las manos esperando que así nadie lo vea; el niño de 4 años se esconde en un lugar donde no puede ver al amigo que le busca; por último, el niño de 5 años es capaz de esconderse por completo.

Cuando aparecen la función simbólica (2-3 años) y el juego simbólico, al niño todavía le cuesta distinguir la realidad de la fantasía en su actuación. Para desarrollar el pensamiento utiliza las ideas de la "realidad" que él mismo crea.

Desarrollo lingüístico

Al principio, el niño utiliza el lenguaje telegráfico y forma frases cortas de 3 o 4 palabras. A medida que crece y madura, el lenguaje se socializa, es decir, se adapta a la conversación y al comportamiento del interlocutor.

El lenguaje del niño o niña de 3 a 6 años, además de expresar deseos, intercambia información (con o sin preguntas) y lanza críticas, órdenes o peticiones.

Desarrollo personal-social

El niño, de 3-6 años, es egocéntrico y cree que todo gira a su alrededor. Al mismo tiempo, comienza a tomar conciencia del YO, y se acepta y se considera a sí mismo.

Las personas adultas tienen una influencia total en los niños de esta edad. Reciben de ellos información sobre sus posibilidades y limitaciones e interiorizan las normas básicas de conducta para vivir en sociedad.

A medida que avanzan en el desarrollo de la inteligencia y adquieren más recursos comunicativos, estrechan lazos con otros niños y niñas.

PAPEL DEL ADULTO

- *Los niños saben lo que quieren y nosotros lo que necesitan. Tendremos en cuenta sus situaciones y deseos, pero nosotros tomaremos las decisiones. Ellos*

no tienen capacidad para tomar decisiones importantes. Nos corresponde a nosotros tomar decisiones.

- *El niño debe saber frustrarse, para ello debe tener normas y límites claros. Los límites dan seguridad al niño para afrontar las acciones cotidianas. Estos deben explicarse de forma clara, sin incurrir en contradicciones entre los adultos, y deben tener una consecuencia.*
- *Tenemos que desarrollar el lenguaje manteniendo conversaciones con ellos y siendo oyentes activos, sin adelantarnos a lo que ellos tienen que decir. Tenemos que hablarles claro y despacio.*

Debemos potenciar su autonomía, fomentando las responsabilidades propias de la edad (quitarse la chaqueta y colgarla, quitarse los zapatos, comer solos, poner la mesa).